

BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1996, urtarrilak 12



Kirol sariak 95



CITROËN

ION AUTOAK

Urarte, 10 BERGARA • Telefonoak: 76 47 49 / 76 47 73 • Faxa: 76 54 27

AX Plus

325.000 PZTA.KO

AURREZPENA

ZX Plus

400.000 PZTA.KO

AURREZPENA

XANTIA Plus

400.000 PZTA.KO

AURREZPENA



AROSZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefonia eta Faxe: 76 54 91

**ZATOS GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA**

Altzarien dekorazio eta erakusketa

- BETIKO LEIHOAK GAURKO TEKNOLOJIARI EGOKITUTA
- EZ HOTZIK, EZ ZARATARIK, EZ URIK!!
- LEIHO TERMOAKUSTIKOAK
- ATEAK
- ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK



GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

PROTALDE JAUREGIA
570 Bergara
Telefonoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarteak.
Bergara, 13 Bergara.
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Agustina Azkarate

Redakzioa:

Agustina Mendibil
Agustina Elkoroberezibar
Agustina Larrañaga

Argitaratzailea:

Agustina Azkarate

Argitaratzailea:

Agustina Azkarate

Argitaratzailea:

Agustina Elortza

Argitaratzailea:

Agustina Plazaola

Argitaratzailea:

Agustina Laskurain

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Angel Elkoroberezibar

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Rodriguez

Argitaratzailea:

Agustina Ortega & Jon Alvarez

Argitaratzailea:

Agustina Ugalde

Argitaratzailea:

Agustina Azkarate

Argitaratzailea:

Agustina Cantero

Argitaratzailea:

Agustina Kanaketa

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Argitaratzailea:

Agustina Labaien

Z E B E R R I D A ?

YOLANDA CEBRIAN Orkestra Sinfonikoko kidea

- Pozik geratu zarete Errege Bezperan antolatutako kotiloian izandako erantzunarekin?

- Bai, oso ondo joan zen dena. 350 pertsona inguru etorri ziren eta giro benetan atsegina izan zen eta goizeko lau t'erdia arte izan ginen. Pentsatzen genuen, asko jota, 500 lagun etorriko zirela baina pozik gaude lortutakoarekin. 350.000 pezeta inguru batu genuen eta horixe zen helburua, dirua lortzea gure 10. urteurrena ospatzeko egin nahi dugun bidaiari aurre egiteko.

- Noiz egingo duzue bidaia hori?

- Oraindik ez da zurrara baina baliteke irailean egitea. Nora? Oraindik ez dakigu, lortzen dugun



diruaren arabera erabakiko dugu nora joan.

- Beste ekitaldirik antolatu behar duzue dirua lortzeko?

- Azaroan Sopuertan emandako kontzertuarekin hasi ginen, kotiloia antolatu dugu eta orain beste emanaldi batzuk eskaini nahi ditugu. Eta pin oroigarriak salduko dira.

"Errege bezperako kotiloian 350 pertsona izan ziren eta pozik gaude lortutakoarekin"

I T U R R I O N E T I K

Peñako etxean hotel txiki bat egiteko proiektua

Bergaran hotel berri bat izan dezakegu laister. Izan ere herritar batzuek Barrenkalean dagoen Peñako etxea erosi berri dute eta badirudi bertan hotel txiki bat jartzeko asmoa dagoela. Udaletik ez dute albistea konfirmatu nahi izan baina dirudienez proiektua laister jarriko da martxan. Bergarako Udala ere interesatuta dago honelako ekimen pribatuekin, azken urteetan turismoa bultzatzeko hainbat plangintza burutu baitira. Bergaran, besteak beste, hotel plazak botatzen dira faltan eta hotel hori zabaltzen baldin bada turistek zuzendutako oferta hobetuko da.

E S A N D U T E

"Argi neukan edozein bikoteri lan asko emango geniola. Etxaniz langile fina da, baina errematatzen ere badaki eta animoak eta konfidantza piskat ematea nahikoa da"

FERNANDO ARRETXE
Pilotaria
EGIN

"Astelenako partidua telebistatik ikusi nuen eta harrিতa geratu nintzen. Bi atzelariak, Beloki eta Elkorro, bikain aritu ziren. Nire andragaiarekin nengoen eta komentatu nion beharbada hobe zela finalera ez heltzea. Txantxetan nabil... Ez dakit Labriten zer gertatuko den"

JOKIN ETXANIZ
Pilotaria
EL DIARIO VASCO

"Europako batz besteko kopurura hurbiltzeko langabezia %23tik %18,9ra jeisteko helburua daukagu"

JAVIER RETEGI
Industria Sailburua
EGIN



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Legebiltzararen Kultura sailaren laguntza jaso du



EL DIA DE LA BESTIA
 Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.
 Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
 Astelehena: 19.30.
 Asteartea: 19.30 (Ikuslearen eguna).



LA TRIBU DE LOS BRADY
 Igandea: 11.30.



LA LOCURA DEL REY JORGE
 Osteguna: 20.00

Zinea

▼▼ **Alex de la Iglesia** zuzendari bilbotarrak (*Acción mutante*) arrakasta berria lortu du bere bigarren filmearekin. Komedia *sataniko* honetan, *Angel Berriatua* apaiza (**Alex Angulo** aktorea) Madrilerabiatuko da anti-kristoarekin akabatzeko asmoz. Han zailtasun haundiak izango ditu bere lana burutzeko eta tartean pertsonaia oso bitxiekin topo egingo du. **Santiago Segura** eta **Terele Pávezen** partaidetzarekin.

▼▼ 1970ko hamarkadan Estatu Batuetan izugarrizko arrakasta lortu zuen "**The Brady Bunch**" telesailean oinarritutako filmea. *Brady* familiak bere ohiturak, itxura eta bizimodua mantentzen jarraituko du eta *bradytarrek* telefono inalanbriko, *grunge* moda edota gaurko *stressari* uko egingo diete.

▼▼ **Nicholas Hytner**ek zuzendutako filme honi esker **Helen Mirren** aktoreak interpretazio saria eskuratu zuen iazko Canneseko Zine Jaialdian. Horrez gain, oscarretarako 4 izendapen izan zituen. Bertan Britaniar Inperioa arriskuan jarri zuen Jorge III. erregearen portaera aldaketa azaltzen zaigu.

Deiak

▼ **Tute txapelketa** jokatuko da urtarrilaren 20an Batzokian arratsaldeko 4retatik aurrera. Izen-ematea Batzokiko tabernan (1.500 pezeta bikote bakoitzeko).

▼ **Jubilatuaren irteera** Donostia urtarrilaren 20an, San Sebastian eguna ospatzeko. Irteera goizeko 9.30etan autobus geltokitik egingo da, bazkaria Errenteriko 3. adineko etxean eta itzulera arratsaldeko 7etan. Izen-ematea (1.725 pezeta) Bergarako Jubilatuetan.

▼ **Kontzertua.** Malcolm Scarpa eta Naco Goñi, igandean eguerdi ordubatean, Pol-Polen.

▼ **Eluska Zabaio Monje** margolariaren erakusketa Naikari tabernan.

Ogia

▼ **Igandea 14:** Ogizun.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 12:** Mozos.
- ▼ **Larunbata 13:** Camacho.
- ▼ **Igandea 14:** Camacho.
- ▼ **Astelehena 15:** Puy.
- ▼ **Asteartea 16:** Guallar/Irizar.
- ▼ **Asteazkena 17:** Estella/Amezua.
- ▼ **Osteguna 18:** Mozos/Ruiz.

Deco-Textil
ZANGITU

Etixerako lantzeria
 Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
 Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69



gizon emakume

Barrenkale, 35 BERGARA

Masterreka 24

Nepal, India eta Hego Amerikako jantziak

Masterreka, 24 BERGARA


Zine mutua eta eskultura

Musikaz lagundutako pelikula mutuak ostiralean

Azaroaren 18an, Udazken Kulturalaren barruan, bertan behera utzitako zine mutuko emanaldiak eskeiniko dira gaur, ostirala, Novedades aretoan gaueko 10 terdietatik aurrera. Bergaran sortu berri den Forum Cinematographe taldeak antolatuta, musika biziaz lagundutako antzinako zine mutuko emanaldiak emango dira: "Viaje a la luna" (George Méliès, 1902), "Asalto y robo a un tren" (Edward S. Porter, 1903) eta "El tesoro escondido" (1927 ingurukoa) laburmetraiak eta "Las tres luces" (Fritz Lang, 1921) luzemetraia. "El tesoro escondido" Gregory La Cava zuzendari estatubatuarrena dela uste da.

Irudiei musika jartzeaz Musika Eskolako Idoia Suinaga (biolina), Jesus Mari Arriaran (oboe), Zigor Martínez (klarinete, klarinete baxua eta requintoa) eta Domentxu Ucin (biolina eta elicono) ikasleak eta Iñaki Salva-

Gaur, ostirala, Novedadesen eskainiko diren pelikuletako bat da George Méliès-en "Viaje a la luna" (1902).



dor pianujole donostiarra arduratuko dira. Gaurko emanaldirako sarrerak 500 pezetan jarriko dira salgai.

Forum Cinematographe taldeak hileroko lehen ostiraletan zine emanaldiak antolatuko ditu. Hurrengo emankizunak honako hauek izango dira: Browningen "La parada de los monstruos" otsailaren 2an, Orson We-

llesen "Sed de mal" martxoaren 1ean, apirilaren 12an "Historias de Filadelfia" (George Cukor), "Johnny Guitar" (Nicholas Ray) maiatzaren 3an eta, azkenik, Juan Antonio Bardemen "Muerte de un ciclista" ekainaren 7an.

Erakusketak:
Eskulturak, eskulanak, fosilak...

Igandera arte ikusgai izango da Kultur Etxean Bergarako eskultoreen erakusketa. Bertan, Germán Amurrio, Santi Arrieta, Jon Balentziaga, Xa-

bier Díaz de Zerio, Ascensio Esnaola, Nerea Madañariaga, Maria Jesus Mancisidor eta Jose Javier Ugalde eskultoreen lanak ikusi ahal izango dira. Astebukaeran Kultur Etxeko erakusaretoa 12etatik ordu bietara eta 6etatik 8etara egongo da zabalik.

Bestalde, Udaletxean Jesus Mari Narvaez bergararrak prestatutako fosilen erakusketa zabalduko da igandean eta urtarilaren 16tik aurrera Izaskun Sáiz eta Edurne Uribesalgoren ikasleen eskulanak ikusi ahal izango dira Kultur Etxean.

**Igandera arte ikusgai daude
Bergarako eskultoreen lanak
Kultur Etxean**

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil
Irizar, 3 Ibargarai, 8
☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria
Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

LAZKANO
Oinetakoak
Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

Benetako Euskal Eskola Publikoa

Irakaslea bere betiko leloarekin ari da:

- Bla bla bla bla...

Bitartean azkenengo ilaran:

- Hi, Mikel, konturatu al haiz egin diguten putadaz?

- Ez nok konturatuko ba! halako liburu potolua eta dana gazteleraz!

- Ba, enterau nok, ez dela gure arazoa bakarrik, alboko gelako Patxik ere gai batzuetako materialak gaztelania hutsean dituela eta euskarazko material batzuk berriz, Euskaltzaindiak ere ulertuko ez litzukela!

- Lehen azterketak kostata gainditzen ginen eta oin berriz jesukristoren milagroetan sinesten hasi beharko gaittuk, bestela...

Hau izan da azken asteetako gai nagusia ikasle askoren ahotan. Euskararen gorabehera hauek ikusita, larritzen hasiak gara Bergarako Ipintza Institutuko hainbat ikasle.

BBB-k jubilazioa harturik, HSAOL (LOGSE) berria sartu zaigu Institutuan. Orain dela... urte BBB sartu zenean, gu gaur egun aurkitzen garen arazo berarekin topatu ziren garai hartako ikasleak, hau da, euskaraz ikasteko material falta. Urteen poderioz, ikasle, irakasle eta hainbat talderen laguntzaz arazoa konponduz joan zen. Orain sistema berri bat ezarri digutelarik euskal irakaskuntzak atzera pauso nabarmen bat eman du, euskarazko materiala berriz ere faltan dugarik.

Gobernuak honen aurrean "paño" egiten du eta guk berriz "hor dago" a luzatzen diogu.

Eusko Jaurlaritzak Euskal hezkuntzari

ematen dizkion dirulaguntza eskasak ikusirik, negarrari eman beharrean lanari ekin diogu.

Horrela ba, benetan euskalduna sentitzen bazara eta euskara bultzatu nahi baduzu, jar zaitetz gurekin harremanetan.

KEPA EGUREN (IPINTZA INSTITUTUKO 250 IKASLE ETA IRAKASLEREN IZENEAN)

Omenaldiaren berotasuna eta pilotalekuaren hotza

Gabon aurretik Bergarako pilotalekuan ikus ahal izan genuen ekitaldia (Xamatx dantzataldearen saioa) nahiz abenduaren 2an buruturikoa (Eskola dantzataldearen saioa) interesgarriak izatez kanpo hunkigarriak ere suertatu dira. Dena den, pilotalekuan jasan behar izan genuen hotza kristona, Xamatzen saioan bereziki, izan zen. Baliteke arrazoi nabarmenen bat lekuko berogailua martxan jartzea posible ez izatea baina horren berririk ez dudanez gero gertakizun lotsagarri hau salatzea erabaki dut (zenbait lagun ere bat datoz nerekin eta ziur naiz aho batez onarturiko ikuspuntua azaltzen ari naizela).

S. ZABALETA

Kultur Etxea

Guztiok dakigun bezala, Kultur Etxea, edozein motatako eskola lanak egiteko prestatuta dago, baina ez da horrela.

Astearte arratsaldean, lagun talde bat, lan bat egiteko elkartu ginen eta gehiegi izatearren (8 lagun gure ustetan ez da gehiegi) bota egin gintuzten. Ondoren kalera irten eta bertan bukatu behar izan genuen gure lana. Nora demontre joan behar dugu bergarar ikasleak talde-lanak egitera?

Kultur Etxean badaude honelako lanak egiteko gela aproposak. Zergatik ez digute sartzen uzten?

DAVID BOUZAS ETA IKASLE TALDE BAT.

Tiira biraka



◆ **Amodiozko**

gutunak

Jardun Elkarrean antolatutako "Amodiozko gutunen IV. Berrigara lehiaketa"ra lanak aurkezteko epea datorren asteartean, urtarrilak 16, amaituko da. Bertan 1981n edo lehenago jaiotako edozeinek parte hartu ahal izango du. Irabazleak 75.000 pezeta eskuratuko ditu, bigarrenak 40.000 eta berugar onenak 25.000 pezeta eta Irakurlearen saria eskultura bat izango da. Argibideak 76 08 19 telefonoan.



Barrenkalean, argazkian eskumaldean agertzen den zatia konponduko da hurrengo egunetan.

HILDAKOAK

Jesusa Laskurain Askasibar

Abenduak 29, 65 urte

Maria Azkargorta Gisasola

Urtarrilak 2, 87 urte

Elena Uribesalgo Trojaola

Urtarrilak 2, 89 urte

Julia Basauri Maturana

Urtarrilak 2, 84 urte

Felix Iñarra Aristi

Urtarrilak 4, 81 urte

Marcos Gisasola Araiztegi

Urtarrilak 6, 65 urte

Marcial Garitano Azkarate

Urtarrilak 8, 86 urte

Jon Mancisidor Aretxaga

Urtarrilak 9, 37 urte

JAIOTAKOAK

Esther Cabo Mulas

Urtarrilak 2

Imanol Retolaza Arriola

Urtarrilak 4

Borja Alcántara Corrales

Urtarrilak 5

Xabier Gaztañaga Fernández

Urtarrilak 6

25 milioi pezeta inguru herrian hobekuntzak egiteko

Copalsa enpresak egingo ditu herriko hainbat toki asfaltatzeko lanak. Aipatutako lan horiek berehala hasiko dira eta, 10 milioi pezetako aurrekontuarekin, besteak beste, Agarreko garai-xerainoko bidea, Bideberri, Masterreka, San Lorentzoko bidegurutzea, Martokoko sarrera eta bertako plazatxoa, Barrenkaleko alde bat, Zubietako zubia, Usondo parkeko aurrealdea eta San Martin ikastetxeko aurrealdea asfaltatzeko asmoa dago.

Esan bezala, asfaltatze

lanak datozen egunetan jarriko dira martxan eta hemendik pare bat astera lanak amaitzea espero da.

Markesina berriak eta ordutegi aldaketa

Bestalde, autobus geltokietan marquesina berriak jarri eta autobusendako tartea utziko da. Proiektu honek 15 milioi pezeta inguruko aurrekontua badu ere, Gipuzkoako Diputazioak kostu horren %70a ordainduko du. Markesina berriak Osintxuko sarreran, San

Juanen, Arizkunetan eta San Prudentzian (lehen zegoenaren parean) jarri dira. Angiozarren beste bat jartzea falta da oraindik, baldin eta Udala eta lursailaren jabeak akordio batera iristen badira.

Autobus kontuarekin jarraituz, gogoratu Pesa garraio enpresak ordutegi berria jarri duela martxan aste honetan bertan.

Interesatuak ordutegien aldaketari buruzko argibideak jaso ditzakete 902 10 12 10 (bide zuzena) edota 76 16 46 (Bergarako geltokia) telefonoetan.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

◆ Gabonetako zozketak

Txapa Irratia eta Gazte

Asanblada:

292 zenbakia (bi pertsonarentzat afaria).

Batzokikoa:

6.625 zka. (mendi bizikleta bat).
6.761 (saskia). Bestalde, Batzokian loteria ere tokatu zen eta Kutxaren bitartez egingo dela ordainketa; pezeta bakoitzeko bost pezeta.

Aek-koa:

66.661 zenbakia (150.000 pezetako soldata).

Etxeberría erloju dendakoa:

7.239 (200.000 pezetako erosketa bonoa) eta 4.065 (100 pezetako erosketa bonoa).

Lokatzakoa:

5.784 (mendiko bizikleta)

Bedelkarrekoa:


165.451 (500.000 pezeta).

Espaloiko dendarien zozketak:

Amaia Osa Gómez (Aldasororen saria), Aitor Bolinaga (Kristina), Javier Llorente (Zuhaizti), Amaia Unzurrunzaga (Anezka), Iraitz Artola (Kanela) eta Amaia Mendibil (Sustraiak tabernak emandako saria).

◆ EAJren ez ohizko batzarra ostegunean

Bergarako Eusko Alderdi Jeltzaleak dei egiten die alderdikide guztiei datorren ostegunean, urtarrilak 18, arratsaldeko Setan Batzokian egingo den ez ohizko batzarrean parte hartzeko.



Kantari bergararrak bere bigarren diskoa aurkeztuko du Bergaran.

Mikel Herzogek kontzertua emango du Bergaran

Urtarrilaren 26an izango da Udal Pilotalekuan

Mikel Herzog kantari bergararrak 1994an kaleratutako "Un regalo de amor" diskoa aurkeztuko du datorren urtarrilaren 26an, gaueko 10 t'erdietan, Bergarako Udal Pilotalekuan. Mikel Herzogek 35 urte ditu eta dagoeneko bi disko kaleratu ditu, "Bienvenidos al paraiso" eta lehen aipatutako "Un regalo de amor". Bigarren honetan baladak dira nagusi, Herzogen hitzetan "*horixe baita momentuan barrutik irretzen zaidana. Ni gaur egun aurkitzen naizen egoerarekin zerikusia dute abestiek, baina nork daki zer gerta daitekeen burren diskoan*".

Solista modura hasi aurretik, Herzog, besteak beste, Cadillac eta La Década Prodigiosa taldeetan

izan da, Zapato Veloz, Kontakto eta Roxana (azken bi hauek mexikarrrak) taldeak produzitu edota Serafín Zubirirentzat abestiak konposatu ditu. Era berean, publizitatean ere lan egin du, hainbat kanpainaren musika landuz.

Gaur egun Mikel Herzog interpretazioan murgildurik dago. José Carlos Plazaren, Centro Dramático Nacional-eko zuzendariaren, eskuetik klaseak jaso ditu eta badirudi hainbat zine gidoi aztertzen ari dela. Kontzerturako sarrerak, aurrez erosiz gero, 1.000 pezetan eskuratu ahal izango dira eta takilan, berriz, 1.500 pezetan jarriko dira salgai. Bergaran, Usoa eta Ariznoa tabernetan eta Kultur Etxean salduko dira.

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92



Autobus geltokiaren bestaldean auditoriuma egiteko asmoa ere badago.

Datorren urtean hasiko dira autobus geltoki berriko lanak

Ibargarai pasealekuan etxebitza berriak egingo dira

Pasa den abenduaren 22an Ibargarai eta Beheko Estazioaren arteko lurzoruaren jabeek eta Bergarako Udalak gune horren garapen urbanistikoa arautuko duen hitzarmena sinatu zuten. Sinatze ekitaldian, besteak beste, Victoriano Gallastegi alkatea, Ortuibar, Mauricio Arregi eta Toki-Eder eraikuntza enpresetako ordezkariak eta Mateo Mendinu eta eta Maria Berastegi izan ziren. Aipatutako gune horretan, etorkizunean, auditorium bat, autobus geltokia, 350 etxebizitza edota hotel txiki bat eraikitzeke asmoa dago. Era berean, Arrizuriko parkeari behin betiko erabilpena eman nahi zaio. Zentzu horretan, alkateak Erantzaintza lekurik egokienean ez dagoela aitortu zuen baina ez zuen

besterik aurreratu.

Hitzarmen honekin 20. area (Miguel Altuna institututik Beheko Estaziora doan tarte eta Arrizuriko parkea biltzen duena) izeneko arautu nahi da eta datorren urtean lehen emaitzak ikusiko dira. Horrela, Aspiazu eta Berasategi bergarar arkitektoek autobus estazio berriaren aurreproiektua aurkeztu dute dagoeneko. Proiektua onartuz gero, autobus estazio berria Torrekuko etxeen parean dagoen aparkalekuan joango litzateke. Alkateak aurreratu digunez, baliteke aurten proiektua onartu eta datorren urtean geltokia egitea. Inguruko biztanleei lasaitasuna eskatu nahi izan diete sinatzaileek, hitzarmena lanean hasteko agiri basea baita oraingoz.

◆ Udal euskaltegiak eta ofizio zaharrak

Gipuzkoako udal euskaltegiek galtzar dauden ofizio zaharrei buruzko erreportaiak landu dituzte eta aipatutako erreportaiak ostegunero "El Diario Vasco" egunkarian argitaratuko dira. Kolezionatzeko moduan publikatuko dira.

◆ HBren asanblada

Herri Batasunaren ildo politikoari buruzko asanblada izango da datorren ostegunean, hilak 18, arratsaldeko 7etan Arrano Zaharrean. Eztabaidarako txostena eskuratu nahi duenak Arrano tabernan jaso dezake.

◆ Hauteskundeak Jubilatuetan

Jubilatuena Zuzendaritza Batzorderako hauteskundeak otsailaren 3an izango dira. Hautagaiak aurkezteko epea datorren ostegunean, urtarrilak 18, amaituko da.

◆ Oldartzen prozesua

Oldartzen prozesuaren azken faserako aportazioak jasotzeko buzoi bana jarriko da Artatse elkartean eta Arrano tabernan. Proposamenak aztertu ondoren, behin betiko herri batzordea aukeratzeko asanblada izango da urtarrilaren 25ean 7etan.

◆ Pilota partiduak

Gipuzkoa eta Nafarroako herrien arteko pilota txapelketako irabazleek elkarren aurka jokatu dute igandean Bergarako Udal Pilotalekuan 10.30etatik aurrera. ETBk emango du.

OILAGORRA

TABERNA

Barrenkale, 21 BERGARA

Usoa Pub



☎ 76 38 57

Irala, 1



☎ 76 20 61

Autobusen ordutegi berria

PESAREN ORDUTEGI ALDAKETARI BURUZKO INFORMAZIO GUZTIA ZENBAKI BAKAR BATEAN

PESARA BIDE ZUZENA
902 10 12 10
PESARA BIDE ZUZENA

Irteerak BERGARAtik

LAN EGUNAK	LARUNBATAK	JAI EGUNAK	LAN EGUNAK	LARUNBATAK	JAI EGUNAK
Bergara-Bilbo			Bergara-Eibar		
07:15	07:15	10:10	06:30	06:30	14:20
08:40	08:40	14:30	07:20	08:20	15:20
14:30	14:30	18:10	08:20	10:20	16:20
18:10	18:10	19:15	09:20	12:20	17:20
Bergara-Donostia (Tolosatik)			Bergara-Gasteiz		
09:00	09:00	10:00	07:15	07:15	09:15
18:00	18:00	18:00	08:00	09:15	11:15
Bergara-Donostia (Autopistatik)			Bergara-Soraluze		
07:35	07:35	10:05	06:30	06:30	14:20
08:35	08:35	19:35	07:20	08:20	15:20
13:35	13:35	—	08:20	10:20	16:20
14:35	14:35	—	09:20	12:20	17:20
19:35	19:35	—	10:20	14:20	18:20
Bergara-Oñati			Bergara-Elgeta		
07:30	—	—	08:40	08:40	10:10
09:30	—	—	13:45	18:10	18:10
13:30	—	—	18:10	—	—
15:30	—	—	Bergara-Zumarraga		
18:30	—	—	08:00	08:00	09:30
19:30	—	—	09:00	09:00	10:00
20:45	20:45	—	11:00	14:00	18:00
Bergara-Iruñea			Bergara-Oñati		
08:00	08:00	09:20	07:10	—	—
14:00	14:00	18:20	08:00	—	—
Bergara-Arrasate			Bergara-Zumarraga		
07:35	07:35	15:35	08:00	08:00	09:30
08:35	09:35	16:35	09:00	09:00	10:00
09:35	11:35	17:35	11:00	14:00	18:00
10:35	13:35	18:35	14:00	18:00	18:30
11:35	15:35	19:35	14:10	—	—
12:35	16:35	20:35	17:00	—	—
13:35	17:35	21:35	18:00	—	—
14:35	18:35	—	20:30	—	—
15:35	19:35	—	Bergara-Antzuola		
16:35	20:35	—	06:40	08:00	09:30
17:35	21:35	—	08:00	09:00	10:00
18:35	—	—	09:00	14:00	18:00
19:35	—	—	11:00	18:00	18:30
20:35	—	—	14:10	—	—
21:35	—	—	17:00	—	—
Bergara-Antzuola			Bergara-Zumarraga		
06:40	08:00	09:30	08:00	08:00	09:30
08:00	09:00	10:00	09:00	09:00	10:00
09:00	14:00	18:00	11:00	14:00	18:00
11:00	18:00	18:30	14:00	18:00	18:30
14:00	20:30	—	14:10	—	—
14:10	—	—	18:00	—	—
17:00	—	—	Bergara-Antzuola		
18:00	—	—	06:40	08:00	09:30
20:30	—	—	08:00	09:00	10:00

Irteerak BERGARARA

LAN EGUNAK	LARUNBATAK	JAI EGUNAK	LAN EGUNAK	LARUNBATAK	JAI EGUNAK
Bilbo-Bergara			Eibar-Bergara		
08:00	08:00	09:00	07:00	07:00	15:00
12:30	12:30	12:30	08:00	09:00	16:00
15:30	17:00	17:00	09:00	11:00	17:00
17:00	19:30	19:30	10:00	13:00	18:00
19:30	—	21:00	11:00	15:00	19:00
Donostia-Bergara (Tolosatik)			Antzuola-Bergara		
07:00	07:00	08:30	06:50	08:30	10:00
16:30	16:30	16:30	08:30	12:10	18:00
Donostia-Bergara (Autopistatik)			Soraluze-Bergara		
08:00	08:00	18:00	07:15	07:15	15:15
12:30	12:30	20:45	08:15	09:15	16:15
15:00	18:00	—	09:15	11:15	17:15
18:00	19:30	—	10:15	13:15	18:15
19:30	20:45	—	11:15	15:15	19:15
20:45	—	—	12:15	16:15	20:15
Gasteiz-Bergara			Elgeta-Bergara		
06:30	06:30	08:30	08:50	08:50	09:50
08:30	08:30	09:00	14:05	17:50	17:50
12:30	12:30	10:30	17:50	—	—
16:30	16:30	12:30	Bergara-Antzuola		
18:30	18:30	16:30	06:40	08:00	09:30
20:30	20:30	18:30	08:00	09:00	10:00
—	—	19:30	09:00	14:00	18:00
—	—	20:30	11:00	18:00	18:30
Iruñea-Bergara			Bergara-Antzuola		
10:30	10:30	17:00	06:40	08:00	09:30
18:00	18:00	20:30	08:00	09:00	10:00
Arrasate-Bergara			Bergara-Antzuola		
06:15	06:15	14:05	06:40	08:00	09:30
07:05	08:05	15:05	08:00	09:00	10:00
08:05	10:05	16:05	09:00	14:00	18:00
09:05	12:05	17:05	11:00	18:00	18:30
10:05	14:05	18:05	14:10	—	—
11:05	15:05	19:05	17:00	—	—
12:05	16:05	20:05	18:00	—	—
13:05	17:05	—	20:30	—	—
14:05	18:05	—	Bergara-Antzuola		
15:05	19:05	—	06:40	08:00	09:30
16:05	20:05	—	08:00	09:00	10:00
17:05	—	—	09:00	14:00	18:00
18:05	—	—	11:00	18:00	18:30
19:05	—	—	14:10	—	—
20:05	—	—	18:00	—	—
Oñati-Bergara			Bergara-Antzuola		
07:10	—	—	06:40	08:00	09:30
08:00	—	—	08:00	09:00	10:00
13:10	—	—	09:00	14:00	18:00
13:50	—	—	11:00	18:00	18:30
15:10	—	—	14:10	—	—
17:10	—	—	18:00	—	—
19:10	—	—	Bergara-Antzuola		



Legedia

Baserritarren heredentziak

- Zein da heredentzien inguruan indarrean dagoen legea?

- 1992tik Euskal Elkarte Autonomoan heredentziari buruzko lege berria daukagu. Hala ere, Bizkaiaren eta Arabako Aiala, Audio eta Aramaio herrietan lege forala mantentzen da, hau da, maioragoaren figurak hor jarraitzen du (heredentzia seme nagusienaren esku geratzen da).

Gipuzkoako kasuan, Estatuko legedia aplikatzen da, 1889ko Kode Zibila hain zuzen ere. Kode Zibila Castilla eta Andaluziako latifundioetan pentsatuta egin zen (latifundioko sail guztiak seme bakarraren eskutan uztea gaizki ikusten zelako) baina ez zen kontutan hartzen hemengo terreneen eskasia eta sakabana-keta. Legearen arabera, baserriaren herena gutxienez seme-alaba guztien artean banatu behar da eta horrek baserriaren zatiketa dakar.

- Zein arazo izaten dira?

- Testamentua egin izan ala ez, senide guztiei bere lur zatia eman behar zaie eta baserria zatitu egiten da. Hori ebitatzeko, baserriaren balorazioa egin eta lurrak eman beharrean dirutan ematen bakoitzari berea. Baina problema nagusia balorazioa egiterakoan dator, erizpide zeharo ezberdinak erabiltzen baitira: ba-



MAITE ARISTEGI
(EHNEko abokatu)

serrian geratzen denak nekazal kriterioak aplikatzen ditu (balorazio bajora eginez) eta, baserriatik alde egin duenak, berriz, merkatal erizpideak erabiltzen ditu, balorazio altuagoa eginez. Horrek betitik ezagutu izan dugun arazoa suposatzen du: konbibentzia proble-

"Problema nagusia baserriaren balorazioa egiterakoan dator"



"Baserrian geratzen denak nekazal kriterioak izaten ditu". ARTXIBOA

mak eta hainbat kasutan familiako harremanen apurtzea.

- Ze garrantzi du testamentua egiteak?

- Oso arrunta izaten da hainbat urtetan baserrian lan egin ondoren azkenean ia ezer gabe geratzen diren seme-alaben kasua. Seme-alaba bat egon daiteke urtean baserrian lanean, bere izenean ezer izan gabe eta gurasoak testamentua egin gabe hiltzen badira baserriaren zatirik nagusia etxetik kanpo daudenez geratzeko arriskuarekin.

- Zein da hori konpontzeko zuen proposamena?

- EHNEk bultzatu nahi duen lege berriaren ardatzik nagusia baserriaren osotasuna eta bideragarritasuna bermatzea litzateke. Gurasoek askatasun osoa izan behar dute baserriaren jabetza osoa baserrian lanean geratzen den seme-alabaren aldeko testamentua egiteko. Testamentua ez dagoenean edota baserria zatitu nahi denean baserriaren balorazioa egiterakoan nekazaritzako erizpideak izango dira kontutan, balore espekulatiboak ebitatzeko. Guraso eta baserrian geratzen den seme-alabaren artean kontratua egiteko aukera izango da, testamentu bidez beste bati ezin izango zaiolarik utzi.

MAHER

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29

☎ 76 22 90 - 76 26 75

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktoarea, 7 BERGARA

☎ 76 53 15

Merke-merke

Beherapenak nonahi



Beherapenetan, hirietako denda haundietako jendetza piloa ez da herri txikitetan ikusten, baina "ganga"ren bat aurkitzeko sasoa izaten da.

**Egunkarian edo te-
lebistan ikusi ditu-
gun jendetza ikara-
garriak, batzuk ko-
rrika, besteak ila-
dan... ez, halakorik
ez da izan Berga-
ran. Gure artean
merkealdiak askoz
ere lasaiagoak dira.
Argi dago hiriburue-
tako eta herrietako
merkealdiak ez di-
rela berdinak.**

Urtean bitan, udan eta neguan izaten dira beherapenak; eta beti, eguzkipean, nahiz euripean, zeresan ugari ematen dute. Erosleak iristeko irrikitzen egoten dira, merkataritxikiak, berriz, ez hainbeste, denboraldian baino askoz gutxiago irabazten baitute. Bergaran, herri guztietan bezala, dendariak merkealdiei buruzko iritzi eta filosofia desberdia dutenez, zenbait Gabonak baino lehenago hasi ziren salneurriak merkatzen, beste batzuk

urte hasieran eta gehienak Errege ostean.

Urte bukaera txarra

95 bukaera ez da ona izan, jantzidenda bateko dendari batek esan digunez, berak inoiz izan duen txarrena. "95eko urria eta azaroa bezalakorik ez dut inoiz ikusi, gogoratzerik ere ez dut nahi, burutik borratzea nahi dut". Oinetako dendariak ere kezu dira: "gutxi saldu dugu, beharbada eguraldiagatik izango zen. Merkealdiak jarrita

ditugu, baina merkealdian ere ez dabil aparteko jenderik. Errege bezperan igarri zen jende gehiago".

Komertzio legea ezinbestekoa

Jantzi denda bateko jabe baten ustez, neguko merkealdia Errege ostean hasi beharko litzateke. "Orain arte denok desberdin jokatu dugu, baina nire ustez Gabonetan merkealdirik ez litzateke jarri behar. Merkataritza arautuko lukeen legea


balego ez litzateke inolako arazorik egongo, denok errespetatu beharko genuke. Ez dagoenez, bakoitzak komeni zaiona egiten du eta ez ez gabilza baldintza beretan".

Erosketa sistema aldatu beharra

Dendari baten iritziz, salmenta txarren errudun, eguraldiaz gain, merkatariek produktuak 6 hilabete lehenago erosi behar izatea da. "Produktuak 6 hilabete lehenago erosita, batetik, inbertsio handiak egiten ditugu, eta bestetik, ezin dugu prebisiarik egin; gero, ez badugu saltzen, zer egiten dugu? Denbora gutxiagoko tartea izanez gero ez genuke hainbeste jantzi edukiko, premien arabera eskuratuko genuke, errotazioa egongo litzateke, prezioak desberdinak izango lirateke... Merkatarien erosketa sistema aldatu beharra dugu".

Erosi erostearren, ez!

Garai batean beherapenak iristen zirenean jende andana handia ikusten zen dendetan. Garai horiek, herrietan behintzat, joanda daude. Gurekin hitzegin duten jantzi eta oinetako dendariak merkealdian ez dute produktu berririk apropos sasoi horretarako dendaratzen, denboraldikoak merkatzen di-



IÑAKI ETXEBERRIA **Eroskiko kontsumo teknikaria**

Merkealdiko erosketak direla-eta egindako erosketarekin konforme geratzen ez den edo engainatua sentitzen den bezero bat baino gehiago izaten da. Horrelakorik gerta ez dadin, Iñaki Etxeberria Eroskiko kontsumo teknikariak zenbait aholku eman dizkigu.

1. Desberdinak dira beherapenak edo merkealdia, saldoak eta likidazioa.

Beharpenetan denboraldiko produktuak saltzen dira, eta ez sasoi horretarako ekarritako produktu berririk, txarragorik edo desberdinik. Saldoetan, berriz, egoera onean ez dauden salgaiak edo aurreko denboraldietatik zaharkituak geratu direnak saltzen dira. Likidazioak denda itxi edo negozioa aldatzen denean jartzen dira.

"Beharpenetan denboraldiko produktuak saltzen dira eta ez sasoi horretarako ekarritako produktu berririk edo txarragorik"

2. Dendariak merkealdian bete beharrekoak:

- Denboraldiko eta merkealdiko prezioak argi eta garbi adierazi behar ditu.
- Denda batean txartela onartzen bada, merkealdian ere onartu beharra dago. Hala eta guztiz ere, alde aurretik denda txartelik onartzen ez dela jakinarazten bada, bezeroaren esku dago denda horretan erosi ala ez.
- Produktua aldatzekotan, bakarrik akatsen bat badu alda daiteke.
- Denda bateko salgai guztiek ez badute beherapenik, ezin dira egon nahastuta, zehatz-mehatz azaldu behar da zeintzuk dauden beherapenarekin eta zeintzuk ez.
- Merkealdiaren hasiera eta bukaera datek agerian egon behar dute.
- Konponketak kobratzen badira, horren adierazgarri bat jarriko da.

3. Erosleak kontutan hartu beharreko aholkuak:

- Kontuz ibili txartelekin, dirua baino nekezago kontrolatzen delako.
- Kalitatea kontutan hartu, ez erosi merke dagoelako.
- Aldaketak onartzen diren galdetu.
- Etiketak begiratu.
- Fakturak gorde, itzultzekotan erosketaren agiri dira eta.

4. Arzoren bat izanez gero egin beharrekoa.

Onena dendara bertara joatea da, baina ez bada ezer konpontzen Kontsumitzaileen Udal Bulegoetara jo. Bergaran ez dago, baina Arrasaten eta Eibarren bai. Bestela, kontsumitzaileen elkarteetara ere jo daiteke.

Jokabideen Psikologia Kabinetea
J.R. FERNANDEZ

Antsietate, depresio, stress eta bikoteen arazoan diagnostiko eta tratamendua

Ramon Maria Lili 2, printzipala eskuma
Telefonoa: 76 59 39 • Faxa: 76 25 72

IKUSBI

**ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK**

Irala, 5 ☎ 76 53 09

**ANDONI
ARANZABAL
LAZCANO**

FINKA ADMINISTRATZAILEA

Barrenkale, 7 1. Eskuma BERGARA
☎ 76 03 46

Kristina Agirre eta Luis Retegi. Beldekarren konfekzio eta oinetako arduradunak.

Bedelkarren, Bergarako dendarien elkarteak, 20 dira konfekzio dendak, 10 lenteria-mertzeriak eta 7 oinetako dendak. Bedelkarreko Kristina eta Luisen ustez, gaur egun merkatariek duten arazorik handiena legerik eza da. Orain arte dendari bakoitzak jartzen zuen merkealdiaren hasiera eta

bukaera (beti gutxienez astebete eta gehienez 2 hilabete), datorren urtetik aurrera, ostera, merkataritxiak hainbeste aldarrikatzen ari diren legea abian jarriko da. Oraindik udako merkealdiaren epea zein izango den zehaztu barik baldin badago ere, negukoak badu, 97ko urtarrilaren 1ean hasiko dira. Legea 2.000 urte arte egongo da indarrean, ordutik aurrera autonomi elkarteek arautuko merkealdia. Bedelkarreko bi

lagunen iritziak, merkataritza arautuko duen legea ezinbestekoa da. "Gipuzkoan 104 dendatan egindako inkesta batean argi eta garbi ikusi da merkatariontzat beherapena kezka iturri dela eta gehienok beherapenak hasteko data ezartzearen aldeko gara. Legeak merkealdiak hasteko data bat jartzea oso garrantzitsua da, hartara denok batera hasi eta arma berdinekin

jokatuko baitugu. Legea ez egotea zenbait denda handiren onerako baino ez da; hauetako asko merkealdietatik bizi dira. Negua hasi baino lehen hasten dira beherapenekin eta fakturazioaren %60 ateratzen dute sasoi honetan. Gainera batzuk legea ere ez dute betetzen, salgaiak ez baitituzte hilabete lehenago dendan izaten. Guk, merkataritxiok, berriz, beherapenetan denboraldiko hondarrak ateratzen ditugu prezio merkean".


tuzte. *"Jendeak ondo daki zer nabi duen eta alferriko gauzarik ez du erosten: ondo begiratu eta aukeratu du. Ez da tontoa, inork ez du engainatzen, eta kalitateari ere asko begiratu dio, kalitate txarreko salgai bat merke dagoelako ez du eskuratzen".*

Oinetako dendariak dioenez, merkealdian gehien ibiltzen den jendea edadekoa da. *"Denboraldian umeei erosten diete, beharrezkoagoa baitute; eurek ezin badute erosi, berriz, merkealdiaren zain geratzen dira eta orduan erosten dute".*

Denboraldiko eta merkealdiko bezeroak

Dendariak nahiago dute merkealdian baino denboraldian saltzea, irabazi handiagoak dituztelako. *"Beherapenek norbaitentzako abantailarik izatekotan, bezeroaren-*

Bedelkarreko dendariak: "Merkeladiak hasteko data bat jartzea premiazkoa da"



Erosketak egiten direnean txartela eskatzea ezinbestekoa da, bestela ezin daiteke erreklamaziorik egin.

tzat dute, merkatariontzat batere ez. Gu ez gara beherapenetatik bizi, jarri behar direlako jartzen ditugu".

Baina merkealdietan ere saldu beharra dute. Dendarien arabera, bi gaietan ibiltzen diren bezeroak zein bakarrik merkealdian ibiltzen direnak daude. "Bezero on bati beherapenetan saltzeak ilusioa egiten du, baina merkealdian bakarrik ibiltzen direnak ere badira. Are gehiago, bada denboraldian zerbait probatu eta gero merkealdietan erosten duenik ere".

Merkealdietako erosleak ez du desberdintasunik nabaritzen: "bakarrik beherapenetan etortzen dena ere berdin-berdin tratatzen dugu eta produktuen kalitateari dagokionez ere berdina es-

kaintzen zaio. Gainera hala izan behar du, izan ere, merkealdietako bezeroa gustora geratzen bada, seguruenek denboraldian ere sartuko baita

zerbait erostera". Lenteria dendetan udan izaten dituzte beherapenak bainujantzietan, baina neguan ez dute merkealdirik. "Udan bai, baina ne-

guan likidazioa edo saldoak jartzen ditugu, denboraldian geratutako taila solteak eta hondarrak jartzen ditugu salsoi honetan".




Beharpenak izan arren produktuaren kalitatea ezin daiteke jaitsi.

BEGIRALE eta ZUZENDARI titulua ateratzeko ikastaroa

Noiz: Astebukaeretan (larunbat eta igande goizetan) • **Izen-ematea:** Jardun Elkartean (Masterreka, 13 ☎ 76 08 19)


Epea: Urtarrilak 22 • **Prezioa:**
25.000 pzta.

Merkealdien zain egoten zara erosketaren bat egiteko?



Vicente Ramudo
52 urte, ikaslea

Ni neu ez baina nere andrea egoten da bai. Nik ez diet garrantzirik ematen, engainu bat iruditzen zait eta.



Mikel Gil
25 urte, langilea

Normalean ez. Beti aprobetxatzen dituzu zerbait baina ez noa horretara. Parean tokatzen bazait erosten dut, bestela ez.



Ezozi Pérez de Larreaga
42 urte, etxeandrea

Normalean tenporadan erosten dut. Batzutan joan izan naiz baina argi dago lehenengotan erosi beharra dagoela, bestela ez da apartekorik aurkitzen.




Iván Molina
24 urte, ikaslea

Ez, normalean ez naiz joaten. Kointziditzen badu zerbait erosi behar dudala orduan igual..., bestela ez.



Arantxa Palacio
52 urte, langilea

Ez, ez naiz joaten. Zer iruditzen zaizkidan? Zerbait topatzen baduzu ondo daude baina uste dut nahiko nekeza izaten dela.



Irene Moreno
24 urte, langilea


Ez naiz beherapenen zain egoten, bakarrik zerbaiten beharra daukadanean. Bestela ez zaizkit gustatzen.

TXUKUN
BEREZITASUNAK
Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

Goierri
AUTOGIDARIEN ESKOLA
Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

KONDE
PANADEROKUA
Burdinate, 1 ☎ 76 02 57



Eskuinaren ordua?

Estatuko politika martxoaren 3aren zain dago, bere zalantza behin-betikoz argitzeko. Eskuina helduko da boterera. PPK gehiago absolutua lortuko du? Koalizioen politika errepikatu eta oraingo beren etsai politikoei Moncloan jarraitu beharko ote dute edo bestela PPK berak orain arteko diskurtsoa alde batera utzi eta paktatu beharra izango du gobernatzeko.


Azken hitza euskal nazionalistek eta, batez ere, katalanek izango dute. Gehiago absolutua lortzen ez bada beren teitlatuan izango da pelota. Nazionalistek eta PPK badituzte beren programetan antzekotasunak, eskuinari dagozkionak, baina baita elementu distorsionatzaile bat ere: Espainiako eskuinak desberdintasun nazionalistak bere osotasunean asumitzeko gaitasunik eza. Eta beste zailtasun bat ere bai, nazionalistei berei kosta egingo litzaikeela beren hautesleei beti etsai izan duten batekiko paktua saltzea.

Ez dira inoiz boteretik hain hurbil izan. Don Manuel bezalako liderrak alhora utziaz aurpegia garbitu eta ezerezetik Aznar bezalako figura bat sortu ondoren, sozialisten hankasartzei eta desgasteari esker hauteskundeetan garaipena lortzeko bidean daude. Horren ondoren ikusi behar zein den beren benetako gaitasuna.

Izango ote dira gai hainbestetan aipatu dituzten gizarte, ekonomi eta terrorismo arloko aldaketak martxan jartzeko; izan ere, horiek erraz saltzen baitira oposizioan egotean edo hauteskunde kanpainenetan baina zailago dira aplikatzen.

Eskuina ez dago bere diskurtsoari dagokionez gaur eguneko ezkerretik oso urruti baina bai konfigurazioari dagokionez eta orain da unea moztorra kendu eta bakoitzaren aurpegi ezkutua ezagutzeko. Sozialismoarena ezagutzen dugu, eta ez du eskuin tradizionalarekin desberdintasun handirik agertu baina ñabardurak ezagutu beharrean gaude.

Juan Antonio MIGURA



Rappelenak egiten

Ez naiz bizitarako planak aurrerapen handiz egiten dituen horietakoa eta ezin erantzunda geratu nintzen urte berrian sartu eta lagun batek "Zelako urtea espero duk aurten?" galdetu zidanean. Oso erreza izango litzaidake ona, txarra edo halanolakoa erantzutea. Baina ez zen hori kontua, berak zintzotasunez galde-tu zidan eta tratamendu berdina eman nahi nion. Denbora behar horretarako, ordea, dozenako tarte horrek eman didana jakina.

Kontu pertsonalak bion interesekoak izanik ez ditut hemen agerian jarriko, aurrez aurre ikusitakoan ordainduko dut zor hori. Ingurukoak, berriz, berak eta zuek jakiteko modukoak direlakoan nago. Eta inguruan zer daukagu? Hasteko ingurua bera: erreka zikinak, pinudiak nonahi, kea, autoak gora behera... naturaren degradazioa kriston abiadan. Gizakia natura hondatzen, Ozono geruzan, Mururoan edo Trekutzen, berdin da. Hor ez da aurrerabiderik emango. Gehiago? Ah! euskal gatazka. Egurra batetik eta bestetik. Urteak daramatzagu egurra pilatzen eta aurtengoan ez diogu ere piloari surik emango. Argi dago hemengoak konpontzeko negoziatu beharra dagoela, orduan zergatik hainbeste denbora ostikoka? Ez dute konpondu nahi, eta ez da konponduko.

Eta zer gehiago? Euskara? Zenbat urte bakarrik txakurrei eta umei egiten? Ah, hori bai, Korrika datorrenean denak argazkirkako lehen lerroan jarrita. Ez da Donostiako beherakadarik geratuko, baina ez du gure hizkuntzak horrelako abiadarik hartuko ere. Ze toki gutxi! Eta oraindik esan barik Retegiren 80.000 lanpostuetan ez dudala sinisten, hauteskundeak iragarri ondoren bota du hori eta. Ez dut esan ere geroz eta jende gehiago hilko dela HIESak jota. Realari buruz hobe ezer esan barik pasatzea. Eta eguraldiaz, jaiotzenetik lehen aldiz kalean elurra zapaldu barik joango zait urtea, ezin esan bergararrei Antzuolan metro erdikoa bota duela. Atzeraka joateko gogoa ematen du, ez? Beno, lasai hartu, igarle lana betetzen dudana lehen aldia da eta.

Beñardo KORTABARRIA

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

ONENA TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA



■ **Bosgarren urteurreneko afaria**

Abenduko azken astean antolatutako ekitaldiei amaiera emateko, BERRIGARAK bere ohizko kolaboratzaile guztiekin afaria egin zuen abenduaren 29an **Altzasu elkarte**an. Guztira, 70 lagun inguru elkartu ginen eta primeran afaldu ondoren solasaldia... eta dantzarako aukera izan zen Jarduneko trikiti eskolako ikasleekin. Trikiti

eskolakoek maila bikaina azaldu zuten eta giro benetan polita izan zen. Hauez gain, Altzasuko sukaldari eta zerbitzariak oso lan aipagarria egin zuten eta beraientzat ere gure zorionik beroena. Orain gure hurrengo ospakizunera arte itxoin behar. Bien bitartean, guztiei eskerrak...

■ **Komikilari apartak**

JARDUNeko Kultur Taldeak antolatutako **komiki lehiaketako laugarren edizioaren** sariak banatu ziren abenduaren 29an Pol-Poleko aretoan. Saritutako lanen erakusketa pasa den igandera arte izan zen zabalik Pol-Polen eta ikusleek artista gazte hauen lanekin gozatzeko aukera izan zuten. Gaztetxoetan **Josu González** eta **Zigor Aiukar** izan ziren irabazleak eta bigarren saria **Mikel Azkaratek** lortu zuen. 14



urtetik 18 urtera bitartekoen artean **Unai Azkaratek** irabazi zuen, bigarren saria **Iban García**k eraman zuen eta hirugarrena **Unai Sánchez**entzat izan zen. Nagusietan, berriz, **Patxi Gallegok** lortu zuen lehen saria, bigarrena **Alex Ugaldek** eta hirugarrena **Usua Mendikutek**. Etorkizun haundiko komikilariak hauek...



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

zumelaga

JATETXEA

EZKONTZAK, DESPEDIDAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, MENU BEREZIAK...

etorri eta galdetu!!



■ **Ikastolako en afaria**

Gabon aurretik **Aranzadi Ikastolan** ibilitako hainbat ikasle talderen afariak izan ziren. Helburua, hainbat urte eta gero berriro lagunekin elkartu eta orduko garaiak gogoratzea zen. Kasu guztietan ere giroa primerakoa izan zen eta

bistan geratu zen ez direla horrenbeste urte igaro. Horren lekuko, 1968an jaiotakoek eginiko afariko erretratu heldu zaigu erredakziora. 1982an ikastola utzi zutenetik ez ziren elkartzen eta, Agirrebeñan afaldu ondoren, gau osoan zehar orduko kontuak gogoratu ederto pasatzeko aukera izan zuten. Datorren abenduan zita errepikatzeotan geratu ziren. Ea beren hitza betetzen duten...

■ **Berrigarako harrobia**

BERRIGARAK bere V. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, pasa den abenduaren 27an **Kazetaritza eta Erretratu Zaharren lehiaketetako** sariak banatu ziren. 16 urtetik gorako en artean, **Maria Gómezek** lehen



saria irabazi zuen Justa Aranzabali egindako elkarrizketa bategatik eta, 16 urtetik beherakoetan berriz, lehen saria **Maitane Azkarate-Askasua** eta **Oihane Gurrutzagarentzat** izan zen eta bigarrena **Ane Iburguren** eta **Naikari Medinarentzat**. Bestalde, Erretratu Zaharren lehiaketan, **Juan Imaz "Errenteri"**k eraman zuen lehen saria, **Martín De Pedrok** bigarrena eta **Bixente Jauregik** hirugarrena. Horrez gain, **Unai Etxaniz, Itziar Ibarra, Martín De Pedro, Bixente Jauregi** eta **Ugutx Basaurik** akzesitak jaso zituzten. Berrigarak badu etorkizunerako harrobia...

Zertan dihardute ba?



Xabier Larrañaga

Historian lizentziaturiko 27 urteko bergararra Arrasateko Udaleko dokumentazioa sailkatzen ari da. Arrasateko liburutegi teknikoan 2.000 tomo inguru dira, tartean boletin ofizialak, liburu juridikoak, txostenak edota Udaleko aktak. Larrañaga azaroan hasi zen lan horretan eta maiatzean amaitzea espero du. Behin tomo ezberdinak identifikatuz gero, datu base informatikora pasatzen dira, interesatuei edozein libururen kontsulta eta lokalizazioa erreztu ahal izateko. Xabier Larrañaga, lan hori egin aurretik, Bergarako Udal Liburutegian izan zen lanean.


Pepelu
Ilepaindegia
 Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
 BERGARA

LASA
Jatetxea
 OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

Javier Cendoya

Javier Cendoya (51 urte, 2 seme-alaba) eibartarra da jaiotzez baina 1970ko hamarkadaren hasieratik gure artean bizi da. Azken 12 urteetan Udaleko zinegotzia izan ondoren, gaur egun Bergarako PSE-EEko Idazkari Orokorra da eta Torunsan egiten du lan.

- Udaletxea botatzen duzu faltan?
- Bai.
- Non egiten zenuen lan gehiago, gobernuan ala oposizioan?
- Nere ustez gobernuan.
- Egindako zein lan gogoratzen duzu gehien?
- Etxez etxeko asistentziak eta Mizpirualde martxan jartzea.
- Eta egin ezinik geratu den zerbait?
- Anbulatorioko bigarren pisuko espezialitateak.
- Bakarrik sentitu zara inoiz Udaletxean?
- Ez, beti daukazu norbait alboan.
- Udaletxetik zer bultzatuko zenuke gaur?
- Enplegua eta beste gauza asko.
- Miresten duzun politikoa bat.
- Felipe González.




"Felipe González asko miresten dudana politikoa da eta hurrengo hauteskundeetan ere, gutxiatik bada ere, irabazi egingo dugu. Nire ametsa pakea lortzea da, umore onekoa naiz eta merkealdien zain ez naiz egoten"

- Zure ustez PSOEn hautagairik egokiena al da datozen hauteskundeetarako?
- Bai, duda barik, gure kandidatorik onena dela pentsatzen dut.
- Zeinek irabaziko ditu martxoko hauteskundeak?
- Alde gutxiatik bada ere, PSOEk.
- Politikako gauzarik onena?
- Herriaren alde lan egitea.
- Eta txarrena?
- Terrorismoa eta korrupzioa.
- Bergaran zerbait botatzen duzu faltan?
- Gauza mordo bat. Komun publikoak esate baterako.
- Amets bat.
- Pakea lortzea.
- Zure bertute bat?
- Zintzotasuna.
- Eta defektu bat?
- Hainbeste izan ditzakegu...
- Umore onekoa ala txarrekoa?
- Onekoa.
- Merkealdien zain egoten zara?
- Ez.
- Gabonetan jasotako oparirik onena?
- Seme-alabek oparitutako idazmakina.
- Zer proposatu diozu zure buruari urte berrirako?
- Andrearekin bidaia bat egitea, zilarrezko eztaiak betetzen ditugu eta.
- Zorionak!!



Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea



Tfnoa: 77 14 24

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

ETXEBIZITZA

Lokal komertziala Muger-tzan salgai (pisua alboan). ☎ 76 13 62.

Aranerrek **pisua** salgai. ☎ 76 00 39 / 79 27 68.

Pisua salgai San Antonion. Bi ganbara. ☎ 76 46 22.

Pisua salgai. Lorategiare-kin. ☎ 76 15 76/76 33 85.

Pisu amueblatua saltzen da Zubietan. ☎ 76 62 44.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Garajea dut alokatzeko Zur-raderon. ☎ 76 37 69.

Taberna salgai. Erreztasun haundiak. ☎ 76 46 90.

Lokal bat saldu edo alokatzen da Ozaetan. ☎ 76 47 74.

Duplex pisua salgai Arane-rrekan. ☎ 76 06 63.

Baserría eta lonja salgai Uberan. ☎ 76 10 00.

Pisua konpartituko nuke. ☎ 76 51 96.

Garaje bat alokatuko nuke Burdiñaten. ☎ 76 18 52.

Garajea erosiko nuke Ma-xiategin. ☎ 76 19 98.

Pisua salgai Bidekurutze-tan. ☎ 76 56 07.

DENETARIK

Ume kotxe-silla egoera onean salgai. ☎ 76 57 32.

Poltsikoko **Casio** telebista salgai. ☎ 76 56 13 (Markel).

Eraztun bat galdu nuen urtarrilaren 4an, Poligonotik kalera bidean. Balio senti-mentalak. ☎ 76 41 31 (Anita).

Collie arrazako txakurku-mak salgai. ☎ 76 64 83.

Opel Corsa (SS-AJ) ko-txea salgai. ☎ 76 28 17.

Mendiko bizikleta bat eta Flanders aluminiozko koa-droa salgai. ☎ 76 47 94.

Peugeot Scooter motorra egoera onean salgai. 65 cm3. Prezio interesgarria. ☎ 76 46 18.

Renault 4 F6 kotxea sal-gai. ☎ 76 22 11.

Bigarren eskuko **karabina** erosiko nuke. ☎ 76 24 31.

Kawasaki 125 KX motorra salgai. ☎ 76 25 50.

Musika bateria salgai. Ia berria. 55.000. ☎ 76 08 58.

Bizikletan ibiltzeko rodilloa salgai. ☎ 76 18 78.

Volkswagen Passat die-sela edo antzeko kotxea erosiko nuke. ☎ 77 09 40.

Donostian (Amaran) pisua osatzeko neska bat behar da. ☎ 47 38 85 (deitu 8e-tatik 10etara).

LANA

Aleman klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

Ingeles klaseak ematen di-ra. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Matematika, fisika eta ki-mika klaseak. ☎ 76 44 34.

Aleman diplomatuak kla-seak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

Matematika eta zientzie-tako klaseak. ☎ 76 03 72.

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).

Ingeles klaseak ematen di-ra. ☎ 76 31 36.

Gutxitu psikikoen hezi-tzaile batek gutxituak, za-harrak edo haurrak zaindu-ko lituzke. ☎ 76 52 08.

Etxeko lanak egingo nituz-ke. ☎ 76 52 89 (Rosario).

Esperientziadun neska batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituz-ke. ☎ 76 08 82 (Isabel).

Ingeles Filologia duen neska batek lan egingo luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

Cambridgeko titulua duen publizitate lizentziatuak inge-les klaseak emango li-tuzke. ☎ 76 06 56 (Irene).

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 46 48 (Paki).

Zaharrak edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 53 18.

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Gutxitu sikiko, zaharrak edo haurrak zainduko nituz-ke. ☎ 76 48 65 (Paki).




POL-POL
Taberna

☎ 76 07 78



Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

 **DEBA**
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37



TOSHARE
☎ 76 29 70

BONOFOTOA



M. A. ELKOROBREZIBAR



Edurne Mancisidor

Edurne Mancisidorrek jaso du oraingoan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu du eta. Argazkian agertzen zen Arruriaga kalean dagoen XVII. mendeko jauregiaren izena galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Acedo-Loiola** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Edurne Mancisidor**rentzat izango dira. Zorionak!!

Bergarako zein eskultorek egindakoa da "Bakearena" izeneko irudi hau eta zein ermitaren atzealdean dago?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	19	8	31	17
2. MADURA INDUSTRIAS GOL	16	8	30	13
3. KABIA	16	9	23	19
4. MONGATXURRA	15	8	31	16
5. BERGATRANS	15	9	26	18
6. BAR CANALEJAS	15	8	20	10
7. OGIZUN	14	8	28	24
8. ORTZI	13	8	19	17
9. ARLOTEAK	8	8	14	18
10. OZETA	6	9	20	26
11. BILDURBAREK OPEL/LAM	6	8	16	19
12. UFALA	2	9	15	37

2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JAUJA OH ZEREZOS	25	9	70	23
2. A ZE FLAXA	19	9	28	26
3. HARTU ZAMAK	17	9	35	25
4. PAGOMENDI	17	9	45	29
5. ETXAGI	13	9	44	39
6. NAIKARI HOOLIGANS	13	9	38	37
7. KAYAK OS JARDINEIROS	12	9	48	33
8. UVE BIKOITZA	12	9	30	42
9. AUTOBEREZI	9	9	37	41
10. HALTZARI	6	9	25	47
11. INDARGORRI	6	9	17	22
12. ERI	4	9	23	37

3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. KIROLZALEAK	22	10	44	24
2. SOROPOTROAK	21	9	45	32
3. NEKROFILIKOS	18	9	36	29
4. MOSKIS	16	9	27	34
5. LA JUVE	13	9	29	31
6. CONSTR. BERGARA	12	9	31	27
7. EZINLEIKE	11	8	37	23
8. AMOZKIBAR	10	8	15	13
9. EH BITERRAK	10	8	15	38
10. SHAKTALE	8	9	19	25
11. ARI ARI	6	8	31	44
12. IGANDEKOAK	3	7	18	25

4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	22	8	38	14
2. PJS	19	9	46	15
3. OSINTXU	16	9	43	32
4. TXIPIRON	15	8	31	16
5. GUADALEST	14	8	24	20
6. PATXARAN TEAM	14	8	29	17
7. PATA NEGRA	13	9	28	45
8. MATXAKATEGI	11	9	37	37
9. LABEGARAIETA	7	9	20	35
10. ALDOKA MALDOKA	4	9	28	34
11. XURRUPAK	0	8	15	56

TALDEAK



Eri taldea Igor Larrañaga, Iker Muruamendiaraz, Ion Garai, Igor Oruesagasti, Abraham Osa, Unai Ugarte, Mikel Garitano, Iosu Uribetxeberria, Arkaitz Gabilondo, Ibon Garitano, Ion Leturia eta Aritz Aranguren osatzen dute. Izen xeblebre samarra dute, Erik Elosuko Errepublika Independientea esan nahi baitu eta 5 urte inguru daramatzate jokatzeko. Aurtengo denboraldia nahiko eskas hasi dute eta taldea pelotari, Iker Muruamendiaraz eta eskubaloi jokalarari, Aritz Aranguren, ezagunekin indartu dute emaitza hobea lortu ahal izateko.

PARTIDUAK

LARUNBATEAN BARRUAN

09:00: La Juve-Ezinleike • **FAC**
 10:00: FAC-Matxakategi • **La Juve**
 11:00: Aldoka Maldoka-Pata Negra • **Matxakategi**

LARUNBATEAN KANPOAN

09:00: A Ze Flaxa-Indargorri • **Bergatrans**
 10:00: Mongatxurra-Bergatrans • **Errotagain**
 11:00: Errotagain-Ogizun • **Mongatxurra**

IGANDEAN BARRUAN

09:00: Osintxu-Txipiron • **Guadalest**
 10:00: Labegaraieta-Guadalest • **Txipiron**
 11:00: Iganekoak-C. Bergara • **Labegaraieta**
 16:00: Nekrofilikos-Kirolzaleak • **EH Biterrak**
 17:00: EH Biterrak-Moskis • **Nekrofilikos**
 18:00: Ari Ari-Amozkibar • **Moskis**
 19:00: Patxaran Team-PJS • **Ari Ari**
 20:00: Soropotroak-Shaktale • **PJS**

IGANDEAN KANPOAN

09:00: Eri-Pagomendi • **Naikari Hooligans**
 10:00: Haltzari-Naikari Hooligans • **Pagomendi**
 11:00: Uve Bikoitza-Etxagi • **Haltzari**
 16:00: Angiozar-Madura I. Gol • **Bar Canalejas**
 17:00: Bar Canalejas-Kabia • **Madura I. Gol**

EMAITZAK

2. MAILA

AUTOBEREZI-ETXAGI 4 - 6

4. MAILA

LABEGARAIETA-MATXAKATEGI 1 - 7
 XURRUPAK-PJS 2 - 7
 OSINTXU-PATA NEGRA 11 - 3
 PATXARAN TEAM-ALDOKA MALDOKA 3 - 2

KOMENTARIOA

TXAPELKETA AURRERA DOA ETA LEHEN ITZULIKO JARDUNALDI GUZTIAK ORAINDIK JOKATZEKE BAUDAUDE ERE, KONTU BATZUK ARGITZEKO ORDUA DELA USTE DUGU. HASTEKO, ESAN DEZAGUN, AURTEN EZ DELA TXAPELUNA ERABAKITZEKO PLAY OFFIK JOKATUKO. HORRELA, BADA, LIGA AMAIERAN LEHEN POSTUAN SAILKATZEN DIRENAK IZANGO DIRA MULTZO BAKOITZEKO TXAPELDUNAK. BESTALDE, AZKEN BI POSTUETAN SAILKATZEN DIRENAK MAILAZ JEITSIKO DIRA ETA LEHEN BIAK, OSTERA, MAILAZ IGO. HIRUGARREN ETA LAUGARREN POSTUETAN GERATZEN DIRENEK, IGOERA FASEA JOKATUKO DUTE AURREKO MULTZOKO 9. ETA 10. SAILKATZEN DIRENEN KONTRA. BUKATZEKO, ESAN BEHAR DA, TXAPELKETAKO KUOTA ORDAINTEKO AZKEN EGUNA IGANDE HAU DELA. ORDAINDU EZ DUTENAK AZKAR IBILI BEHARKO DIRA.

TALDEAK



Indargorri taldea Ibon Gezalaga, Iñigo Montori, Rubén Iturbe, Ibán Saidí, Ion Irizar, Xabier Zubikarai, Mikel Montori, Jesus Mari Amosarrain, José Luis Jiménez, Daniel Sánchez, Jesus Urriategi eta Antonio Galiotek osatzen dute. Guztiak antzuolarrak dira eta bigarren mailan ari dira iazko denboraldian mailaz igo ondoren. Aurtengo denboraldia ez dute oso ondo hasi azken postuetan baitaude, baina bere izenak dioten moduan, indarra soberan dute eta emaitza onak etorriko direla espero dute. Horrela izan dadila, bada.

T XINPARTAK

Emakumezkoen futbito txapelketa

Larunbatean hasiko da Emakumezkoen Lehen Futbito Txapelketa. Miguel Altuna Institutuko futbito kantxan jokatu dira partidua eta igerilekuetako aldagelak erabiliko dira. Lehen jardunaldirako iragarri diren neurketak honako hauek dira: Kantxa nagusia, Blue Star-Potzu eta Zapaburuak (16.00), Push Team-Berdin Du (17.00). Bigarren kantxan, berriz, Guk-Almondigak (16.00).

Pala Txapelketa

Udal Kirol Zerbitzuak antolatzen duen Pala Txapelketaren 6. ediziorako izena emateko epea hilaren 30era arte zabalik dago.

Frontoietako argiak

Zabalotegi, Elorregi eta Osintxuko frontoietako argiak erabiltzeko fitxak (200 pzta. orduko), Kirol Zerbitzuan, Osintxuko liburutegian eta Txuringon, Elorregiko soziedadean, Kiroldegian eta Udal Euskaltegian eskuratu daitezke.

Igeriketa probak

Larunbat arratsaldean Neguko Ligako laugarren jardunaldiko igeriketa probak jokatu dira Agorrosinen. Bergararik 12 igerilarik hartuko dute.



Realeko eta BKEko jubenilak partidu ostean ateratako argazkian.

San Silbestre

Alberto Revuelta elgoibartarrak irabazi zuen San Silbestre herri krosa 26' 23"ko denborarekin. Lehen bergararra, Aitor Eraña, 10. postuan sailkatu zen 29' 36"ko denborarekin eta herriko betetan onenaren saria ere jaso zuen. Herriko seniorrik onena Aiert Lizarralde izan zen. Senior lasterketan 35 korrikarik parte hartu zuten, horietatik 8 bergararrak.



Argazkian, saria jaso zuten lasterkari batzuk.



Mongatxurraoek eskiatzera bidaia bat irabazi zuten olinpiadetan.

izan zuten talde guztiek eta bergararrek eskubaloian eta igeriketan oinarritu zuten garaipena. Sari moduan eskiatzera bidaia bat dute taldeko 12 kirolariek. Altos Pornos eta Gu taldeek 13. eta 16. postua eskuratu zuten.

Reala nagusi

Realeko jubenil taldeak irabazi zuen BKEk antolatzen duen gazteen mailako Gabonetako txapelketa, Bergarari 7 eta 0 irabazi ondoren. Final erdietan Realak luzapenean Eibarri irabazi zion eta Bergarak, berriz, 1 eta 0 Aloña Mendiri. Finalean kaskar aritu baziren ere, BKEko gazteek txapelketa txukuna burutu dute.

Bergararrak onenak

Deba Garaiko Mankomunitateko kirol zerbitzuek antolatuta Gabonetan zehar Deba Garaiko Herrien Arteko I. Olinpiada jokatu zen. Lehian aritu ziren 16 taldeetatik Bergarako Mongatxurra izan zen garailea. Olinpiadetan areto futboleant, saskibaloian, eskubaloian, igeriketan eta palan egin behar

KARTELDEGIA

FUTBOLA

- ◆ **Bergara-Oiartzun**
Preferente maila.
Igandea, 15.45. Agorrosin.
- ◆ **Bergara-Almen**
2. mailako jubenilak.
Larunbata, 17.00. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Antoniano**
Emakumezkoak.
Larunbata, 15.30. Ipintza.

ESKUBALOIA

- ◆ **Bergara-Caja Bilbao**
Senior mutilak
(2. Nazionala).
Larunbata, 17.45.
Labegarieta kiroldegia.
- ◆ **Bergara-Elgoibar**
Jubenil mutilak.
Larunbata, 19.00.
Labegarieta kiroldegia.
- ◆ **Bergara-Hondarribia**
Senior mutilak
(2. Territoriala).
Igandea, 12.15.
Labegarieta kiroldegia.

SASKIBALOIA

- ◆ **Ibili Bergara-Garbi**
Senior mutilak.
Larunbata, 16.15.
Labegarieta kiroldegia.
- ◆ **Alfis Bergara-Goierrri**
Junior mutilak.
Larunbata, 18.30.
Mariaren Lagundia.
- ◆ **Bergara-English School**
Junior neskek.
Larunbata, 12.15.
Labegarieta kiroldegia.
- ◆ **Bergara-Aletico SS**
Kadete neskek.
Larunbata, 16.00.
Labegarieta kiroldegia.

Antonio Merino

Goi mailako kros korrikalaria

Antonio Merino antzularra 29 urterekin Euskal Herriko hainbat kros txapelketetan aritu da azken urteetan emaitza onak lortu dituelarik. Aurtengo denboraldian ere emaitza politak lortu ditu, izan ere Erregetan Uliako Gimnasticak antolatzen duen krossean lehen euskalduna izan zen.

- Konforme aurtengo denboraldian orain arte egindako lanarekin?

- Prestaketa gogorra goa egin dugu aurtun eta azken urteetan egindako lanak emaitzak eman ditu. Orain arte korritutako lasterketetan oso ondo aurkitu naiz eta konforme nago nire buruarekin. Usansoloko proban 8 keniar izan ziren eta 5. amaitu nuen. Beasaingo San Silbestrean 2. egin nuen eta uste dut gehiago egin nezakeela. Uliako lasterketan lehen euskalduna izan nintzen eta Euskadiko txapelketarako test ona izan zen.

- Zeintzu izango dira hurrengo lasterketa garrantzitsuenak?

- Igandean Irunen izango da Gipuzkoako txapelketa eta ez badu euri askorik egiten eta lokatza ez baldin badago, uste dut Kamel Ziani, gaur egungo txapeldunari, irabazteko aukerak ditudala. Ondoren Euskadiko txapelketa dut eta hori da aprobazteko daukadan gaia. Oraindik ez dut igo podiumera eta Espainiako txapelketan ia beti

2. euskalduna izaten naiz Martin Fizen atzetik. Diego Garcia izango dela entzun dut, baina barruan zerbaitek irabazi dezake dala esaten dit.

- Diego Garzia eta Martin Fizek, krossa utzi eta maratoina jo dute. Maratoian ikusten al duzu zure burua?

- Ez, nire aintxintxika egiteko era ez da oso egokia maratoirako eta gainera ez dut oso gustoko, batzuk diru gehiago ematen dutela dioten arren. Halere mundu honetatik maratoi bat egin barik ez joatea espero


dut.

- Laguntza aldetik zer moduz zabilta?

- Atletismoan ez dago dirurik; baina badirudi ETBk ematen duen lasterketekin esponsorrak sartu direla. Gimnastica de Uliako Yogers taldean nabil eta laguntzatxo bat ematen didate. Baina bizitzeko egunean 8 ordu egiten dut lan eta lana eta entrenamenduak egokitu egin beharra daukat.

- Igandean Gipuzkoako txapela Antzulara?

- Baietz uste dut, saiatuko naiz behintzat.



"Igandean Gipuzkoako txapela Antzulara ekarri nahi dut".

"Nire korrika egiteko era ez da oso egokia maratoirako; gainera ez dut gustoko"



Zubietako haur eskolakoak (1973)

Zubietako haur eskolan herriko neska-mutiko ugari aritu ziren garai batean. Gaur egun itxita dago eta musika eta antzerki taldeek entsaiutarako lokal bezala erabiltzen dute. Argazkian agertzen direnak orain dela 23 urte lau urte inguru zituztenak dira eta Itziar Ugarriza andereñoarekin batera ikus ditzakegu. Aste honetan erretratu Berrigarán argitaratzen dugula eta, Zubietako haur eskolan ibilitakoek afari bat antolatu nahi dute. Eskolan ibili ziren guztiak bildu nahi dituzte antolatzaileek mahaiaren inguruan. Interesa dutenek Azpeitxi Jate-txean eman dezakete izena (76 55 00).

Hona argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik hasita:

Goiko lerroan: Cesareo Palacios, Eugenio Barquero, Itziar Arzelus, Ana Sasiain, Marisol Moretón, Esteban Lazkano, Javi Miranda, Nuria Durana, Roberto Polanco, ezezaguna eta Ana Rodríguez.

Erdian: Arantzazu Ugarteburu, Sonia Durana, Jose Mari Romero, Cristobal Iñarra, Antxon Sasiain, Itsaso Aginagalde, Ana Prieto, Xabi Alzola, Irene Sánchez, Idoia Bengoa, Amaia, Iosune Larrion eta Mari Asun Osuna.

Behoko lerroan: Olatz Beldarrain, Jose Javier Zabaleta, Manolo Franco, Felipe Pineda, Matilde Rivas, Rosa García, Mirari Coranti, Juan Luis Arriola, Irene Prieto eta Monica Colinas.

Argazkia: Olatz Beldarrain

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi ☎ 76 15 09

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarroia 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

ZUBIETA

elektragintza

**MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK**

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



MAPFRE
MUTUALIDAD

Simon Arrieta, 3 BERGARA
☎ 76 28 79 / 76 18 80

GOGORATU!! ORDAINKETA ERRAZTASUNAK ETA %50 ARTEKO BEHERAPENAK ISTRIPUAK EZ IZATEAGATIK

Inoiz ez du aseguru etxe batek halako aukera zabalik eskaini. MAPFRE MUTUALIDAD-i esker, hemendik aurrera izango duzu zer aukeratu. Edozein direla ere zure beharrak eta nahiak, zure autoarentzako neurriko aseguruak aurkituko duzu beti. Hala seguru izan zaitezten. Seguru eta babestuta. Zure atzean auto-asegurutan buru den etxea izango duzulako.

ELKAR

ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA



UNITED COLORS
OF BENNETTON.

BEHERAPENAKI!

Maialako Errabala, 13 ("OKENDO KIROLAK" en ondoan) Tfnoa: 79 50 78 ARRASATE